

2020KO ZEZEILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2020eko zezeilaren 27an, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EHBildu)

Zinegotziak:

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- MIREN GARBIÑE OLEALDEKOA ORBE andrea(EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- IRATI ABIO MURUAGA andrea(EH Bildu)
- MARIA BEGOÑA ABIO ZAPIRAIN andrea (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- GUILLERMO MARTÍN MARTÍN jauna (EAJ-PNV)
- GORKA URIARTE URAZURRUTIA jauna (EAJ-PNV)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI)
- JAVIER MIGUEL ALVARADO jauna (BAKIOBAI)

Helburua: Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deustela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”adagoala egiaztatu orduko, alkate andrearen lehendakaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2020KO URTARRILAREN 23AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2020ko urtarrilaren 23an egindako ohiko udalbatzaren akta, eta alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.

Gai honeri hasikerea emoteko, idazkariak honako dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

449/2019.- Nominak ordaintzeko ebazpena.

450/2019.- Auto elektrikoa erosteko ebazpena.

451/2019.- Aurrekontu kredituen aldarazpena.

452/2019.- Zergen itzulketa kopuruak.

453/2019.- Lansarien %0,3ko igoera.

454/2019.- Vega eraikineko lokalaren azpierrendamendua luzatzea.

455/2019.- Mugiment kirol txartela ezartzeko lankidetzaz hitzarmenari atxikitzea.

456/2019.- Hizkuntza inpaktuaren azterlana onartu.

457/2019.- Nominak ordaintzeko ebazpena.

458/2019.- “Bakio: lurraldea eta herritarrak” prestatzeko kontratu txikia.

459/2019.- Edukiontzia erosteko kontratu txikia.

460/2019.- Herri jabaria mahai eta aulkiekin okupatzeagatiko tasa, kontseziandunen eta badoen 2019ko zerga errolda onestea.

461/2019.- Eskubideen hasierako saldoaren aldarazpena onestea.

462/2019.- Faktura atzera botateko ebazpena.

463/2019.- Obligazioen onarpena.

464/2019.- Obligazioen onarpena.

01/2020.- Biztanle bati baja emotea udal erroldan.

02/2020.- Nitxo baten kontzesinoa.

03/2020.- Komunitate bateri obra lizentzia emotea.

04/2020.- Etxebizitza bat lehenengoz okupatzeko baimena.

05/2020.- Udaltzain baten izendapena.

06/2020.- Desjabetze bateri ekiteko ebazpena.

07/2020.- Beste epe bat emotea Udalari obrak gauzatzeko proiektua aurkezteko.

08/2020.- Udal instalazinoetako energia elektrikoa kontratatzeke espedientea onartzea.

09/2020.- “Bakioko Bardintasunerako I. Plana” garatzeko lanak egiteko epea luzatzea.

10/2020.- 2020ko urtarrilaren 1etik hasi eta 2020ko Bakioko Udalaren Aurrekontuak indarrean sartu arte, 2019. urteko Aurrekontu Orokorrak luzatzea.

11/2020.- Balorazino-txostena eta Kontratazino Mahaiaren 2020ko urtarrilaren 10eko erabagi-proposamena onartzea.

12/2020.- Aurrekontu kredituen gaikuntza.

13/2020.- Eskatutako segregazino bat ez onartzea.

14/2020.- Autoen udal pasabide bateri baja emotea.

15/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

16/2020.- Feliena hesitzeko baimena.

17/2020.- Berbalagun proiektua egiteko kontratu txikia.

18/2020.- Kontratu txikiak egiteko prozeduren modelizazioa prestatzeko kontratu txikia.

19/2020.- Udal bilkurak grabatzeko kontratu txikia.

20/2020.- Animaliak batzeko zerbitzua esleitzea.

21/2020.- Oilategi baten eskualdaketa onartzea.

22/2020.-. Komuna ipinteko eta kontratatzeke espedientea onestea.

23/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea..

24/2020.- Iberdrolari obra lizentzia emotea.

25/2020.- Zenbait biztanleri baja emotea udal erroldan.

26/2020.- Nominak ordaintzeko ebazpena.

27/2020.- Obra lizentzia emotea.

28/2020.- Arbolak ebagiagaitiko abala askatzea

29/2020.- Udal jabetzako garajeen kontzesiodunen 2020ko zerga errolda onestea.

30/2020.- Ibilgailuak norbanakoen finketara eta garajeetara herriko lurak zeharkatuz sartzea eta haietatik irteteagaitiko tasaren 2020ko zerga errolda onestea.

31/2020.- Obra lizentzia emoteko ebazpena.

32/2020.- Nitxo baten kontzetsinoa.

33/2020.- Itxas-Alderri aratusteen ekitaldia egiteko baimena emotea.

34/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

35/2020.- Iberdrolari obra lizentzia emotea.

36/2020.- Herriko lorezaintza zerbitzua kontratatzeke espedientea onestea.

37/2020.- Fidantza bat itzultzeko ebazpena.

38/2020.- Nitxo baten luzapena.

39/2020.- Nitxo baten luzapena.

40/2020.- Megafonia lagatzea.

41/2020.- Megafonia lagatzea.

42/2020.- Akatsak zuzentzeko ebazpena.

43/2020.- Nitxo baten luzapena.

44/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

45/2020.- Txostena eta Kontratazino Mahaiaren 2020ko urtarrilaren 31ko erabagi-proposamena onartzea.

46/2020.- Epai baten barri emotea.

47/2020.- TETRA Irrati Mugikorreko Sare Digitala (IMSD) komunikazio sarean Bakioko Udaltzaingoa sartzeko hitzarmena.

48/2020.- Txosna bat iminteko baimena emotea.

49/2020.- Txosna bat iminteko baimena emotea.

50/2020.- Lanpostuen balorazioa egiteko zerbitzuen kontratu txikia adjudikatzea.

51/2020.- Obligazioen ordainketa onartzea.

52/2020.- Aratusteen ekitaldia egiteko baimena.

Alkate andreak dekretu honeei buruz azalpenak emondauz:

450/2019: auto elektrikoa erosteko kontratazino espedientea onetsi: Udaltzaintzako kotxe berria erosi behar da eta auto elektrikoa erosteko espedientea martxan jarri da. Lizitazioaren aurrekontua 40.000 € (BEZ barruan dala).

455/2019: Mugiment hitzarmena: Euskal Autonomia Erkidegoan, mugiment kirol txartela ezartzeko lankidetzaz hitzarmenari atxikitzea (instalazioak, zerbitzuak eta/edo jarduerak eskaintzea). Hitzarmena Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin sinatu da.

458/2019: Bakio, lurraldea eta herritarrak: Udalak 2016an hasitako hausnarketa estrategikoaren bigarren fasea lantzeko Leire Milikua arkitekto andreri kontratua esleitu jako: 14.380 €, BEZ barik. Energia, etxebizitza, turismoa.

459/2019: Edukiontzia erostea: CONTENUR S.L. enpreari edukiontzia hornitzeko kontratu txikia esleitu jako, prezioa 9.900€ + BEZa izanik.

08/2020: udal instalazioei %100 berriztagarria izango dan energia elektrikoa hornitzeko kontratazino espedientea onartu da, lizitazio oinarria 43.999,99 € (BEZ barruan dala) izanik, eta kontratuaren iraupena urte batekoa.

12/2020: Kredituen gehikuntza: 324,348,87€ko dirulaguntza onartu da haizeteengatik izandako kalteei aurre egiteko.

17/2020: Berbalagun kontratua: 6.525 euro ordaintzearen truke AEKren zerbitzua kontratatu da

20/2020: Animaliak batzeko kontratua esleitzea: Centro Canino Quincocan S.L. enpreari animaliak batzeko kontratua esleitu da, Kontratazino Mahaiaren proposamena ontzat emonaz.

22/2020: Bakean inguruan komuna jartzeko kontratua: aurreko lizitazioa hutsik geratu zan, udalak egindako deialdira ez zalako lizitatzailerik aurkeztu. Horren ondorioz, administratuzino klausulen eta preskripzino teknikoan agirietan aldaketa zehatz batzuk egin diran ezker, komunak jartzeko hornidura kontratua esleitzeko lizitazioa egingo da, lizitazio oinarria 35.250,00 euro izanik.

46/2020: Epai baten berri emotea: Eskolako aterpea sententzia: Bilboko Administrazioagazko Auzien 2. zk. Epaitegiak, *PROVISER IBERICA S.L.-INDENORT PV S.L. ENPRESEN ALDI BATERAKO ALKARTEA*ren demandaren ondorioz tramitatutako 258/2019 errekursoaren epaia kaleratu dau, eta bertan haxe azaltzen da: demanda ezeztatu egiten da, esanez aldi baterako enpresa horreei udalak ipinitako 19.034,40 euroko isuna bidezkoa dala. Isun hori ipini zan enpresok eskolako aterpearen obrak egiteko orduan burutzapen epea guztiz gainditu ebelako, horren errua euren izanik.

47/2020: TETRA irrati mugikorra instalatzeko hitzarmena sinatzea: Udaltzainek irrati mugikor hau erabili ahal izateko eta beste batzuek azkarlanean aritu ahal izateko.

3.- AURREKONTU-PARTEHARTZAILEEN EMOITZEN ONARPENA ERABAGI, HALA BEHAR BALITZ.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 79. artikulua arabera, Udal aurrekontuan gastu publikoari buruzko konpromisoak zehazteko herritarren parte hartzea beharrezkoa dala kontuan hartuz, Alkatetzaren xx/2019 dekretuaren bidez, 2020ko udal aurrekontuari begira, *Aztiker Koop.Elk.Txikia* enprearen zerbitzua kontratauzan helburu honegatik: Partaidetza Aurrekontuak garatzeko prozesua kudeatzeko eta dinamizatzeko orduan, aholkularitza teknikoa jasoteko, bti be 2020ko aurrekontua herritarrek batera eztabaidatu eta erabakitze prozesua ahalik eta modu eroangarriagoan garatzeko.

Beharra lau fasetan, hauexek, hain zuzen ere:

1. Fasea. Abiatzea (konpromiso politikoa, komunikazio eta informazio plangintza)
2. Fase. Proposamen jarraipena eta herritarrei informazioa (dokumentazioa eta informazioaren prestaketa eta herritarrei informazioa zabaldu.
3. Fase. Aurrekontuaren galdetegia (galdetegiaren diseinua eta kontrastea, herritarren partaidetza aktiboa eta aurrekonturako ekarpenak.
4. Fasea. Aurtengo prozesuaren erabakia (ustiaketa, erabakia eta itzulketak).

Enpresa horrek, daborduko, 2020ko udal aurrekontuaren gastuen orriko inbertsino ataleko gastu publikoari jagokonez, aurrekontu parte-hartzailearen emoitza aurkeztu dau. Jasotako botoen ondorioz, lehenesten diran inbertsinoak honeexek dira:

INBERTSIO LEHENETSIAK

znb	PROPOSAMENA	€	BOZKAK	%
1	Gimnasia egiteko parkea sortu Bakean. Gazte (kalistenia) zein adineko pertsoneri zuzenduta.	39.500 €	117	50,9
10	Abiadura murrizteko neurriak hartu	20.000 €	107	46,5
4	Herrian konposta egiteko konpostontzi bat jarri.	6.534 €	92	40,0

Gastu arruntei jagokonez, herritarren nahia bildu da, eta honakoa da gastu arruntean 9 atalek jaso daben balorazioa 1-10 eskalan. 1 izanik “asko hobetu daiteke eta 10 “oso ondo egiten du”.

BALORAZIOAK	PUNTUAZIOA
1. Mantentze-lanak (bideak, parkeak, eraikinak, mobiliarioa...)	6,1
2. Energia-aurrezpena (Udalaren azpiegituran)	6,3
3. Kultura eta jaiak	6,5
4. Herritarren zaintza (emakumeak, gazteak, haurrak, migratuak, adinekoak...)	6,8
5. Komunikazioa	6,8
6. Hondakinen kudeaketa	6,0
7. Zerbitzuak (eraikinen garbiketa, turismoa, liburutegia, lorezaintza...)	6,9
8. Herritarren partaidetza	7,6
9. Kiroldagiko eskaintza	6,7
GUZTIRA BATAZ BESTE	6,6

Zaborren gaiari jagokonez, hauxe ondorioztatu da:

1. Zabor kopurua gutxitzea: Horretarako kanpaina eta formazio desberdinak egitea planteatzen dugu.

Plastikoaren erabilera gutxitzeko formazioa udal langile eta herriko eragile desberdinentzat.

Herriko umeekin hitzarmena, zabor kopurua gutxitzeko kanpaina abian jarri dezaten.

Zabor-kudeaketa egokiaz kontzientziatzeko kanpaina desberdinak herritarrentzat.

Aurrekontu parte-hartzaileetatik eratorritako proposamena martxan jartzea: konpostera bat. Jarri aurretik kokapena eta kudeaketaren inguruko analisía egingo da.

2. Zaborraren kudeaketaren analisi sakona egitea, erabakiak hartu ahal izateko:

Bi mailatan lan egitea proposatzen dugu:

Herriko kontenedoreen berrantolaketa, zaborraren kudeaketa hobea egiteko.

Egoeraren analisi sakona egitea bestelako erabaki batzuk hartzeko.

Horretaz gain zabor-bilketa hobetzeko 2015. urtean martxan jarri ziren errefortzuekin aurrera jarraitzea planteatzen da:

Herriko zaborrontziak hutsitzeko asteburuetakoz zerbitzua martxan jartzea.

Denboraldi altuko zerbitzuak luzatzea eta unean uneko errefortzuak kontratatzea.

3. Kontenedore parkea hobetzen jarraitzea.

Zinegotziek horren ganean jakitun diran ezker, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamaika), **aurrekontu parte-hartzailearen emoitza aho batez onartu dau.**

4.- 2020KO UDAL AURREKONTUA ONARTU, AURREKONTU PLANTILLA BARRUAN DALA, HALA BEHAR BALITZ.

Lehenengo eta behin, Ametz Jauregizar andreak aurrekontuaren zenbatekoari buruzko informazioa emon dau, era honetara:

- a) Gastuen orriaren aurrekontua guztira 4.370.817,87eurokoa da.
- b) Diru sarreren orriaren aurrekontua guztira 4.385.814,88 eurokoa da.

Ostean, alkate andreak, 2020ko udal aurrekontua osotzeko orduan egin diran tramiteen barri emon dau, era honetara:

1. Abuztuak 26an aurrekontuak egiteko plana martxan jartzeko beharra jartzen da mahai ganean. Beraz, Udalak aurrekontuak diseinatu ahal izateko aurrekontu parte hartzaileak martxan jartzea planteatzen da.
2. Enpresa desberdinak tanteatzen dira eta Aztikerren eskeintza egokiena dela baloratzen da txosten tekniko baten bitartez.
3. Irailaren 9an bilera bateratu bat egin genuen alderdi guztiek eta prozesuaren alde egin genuen.
4. Urriaren 21ean lehenengo zirriborroa igortzen da Tokiko Gobernutik. BakioBaien eskutik.
5. Urriko osoko bilkuran prozesua aurrera eramateko konpromiso politikoa onartu genuen aho batez.
6. Azaroak 21, azaroak 24 eta Abenduaren 1an parte hartze saioak egin ziren eta prozesuan zehar inkesta eta bozketa online egiteko aukera egon zen.

Prozesua bukatuta eta herritarren eskariak kontutan hartuta aurrekontuaren desglosea aurkeztu zen emailaz urtarrilaren 1ean. Aurrekontua aztertzeko bilerak ondoko egunetan izan ziren:

7. Urtarrilaren 8an arratsaldeko 18.30etan bilera deitu zen proposamenak jasotzeko asmoz eta aurrekontuan txertatzeko.
8. Otsailaren 6an aurrekontu definitiboa azaldu zen urtarrilaren 8an jasotako ekarpenak kontutan hartuta.

Horren ostean, 2020ko aurrekontuaren ardatz estrategikoak zeintzuk diran zehaztu dauz, honeexek hain zuzen be:

Hauek dira definitutako ardatz estrategikoak:

- Mugikortasuna eta irisgarritasuna.
- Herrigunetik aldentuta dauden auzoetan duintasunez bizi ahal izateko oinarrizko zerbitzuak hobetzea.
- Aldaketa klimatikoari aurre egiteko neurriak ezartzeko estrategia gauzatzea:
 - o Uholdegarritasuna eta erreken mantenimendua gauzatzeko plana aurrera eramatea.
 - o Energia berriztagarriak ezartzea eta energiaren kontsumoa murrizteko neurriak garatzea.
- Udal eraikinen inguruan hausnartzea eta behar direnak zaharberritzea.
- Herria euskalduntzeko pausuak ematea eta herritarren bizi kalitatea eta aisialdia hobetzeko proiektu eta zerbitzuak martxan jartzea.
- Zerbitzu publikoak egonkortu eta hobetzeko udal langileen egoera hobetzea.
- Espazio guztietan berdintasuna bermatzeko pausuak ematea.

Ardatz hauek era mailakatuan garatzeko, urtero udal aurrekontuak partida desberdinak sortu edo daudenak indartu beharko ditu.

Jarraian, zehaztu dauz, aurrekontuak izango dituen helburu nagusiak.

Helburu orokorreki dagokienez, hauek dira aurrekontuak izango dituen helburu nagusiak:

- Udal proiektuetan herritarren parte-hartzea indartu eta egonkortzeko politikak garatzea. Horretarako gardentasun- eta komunikazio-politika sustatuko dira.
- Herritarren beharrianak asetzeko zerbitzu publikoak indartzea.
- Auzoetako beharrianak asetzea eta zerbitzu publikoak indartzea.
- Udal eraikinen eraberritzea indartzea.
- Herritarrekin eztabaidatutako eta adostutako ildo estrategikoak garatzea eta gauzatzea, hala nola, aldaketa klimatikoari aurre egiteko neurriak hartzea, inundabilidadea hobetzeko lanak egitea, energia berriztagarriak sustatzeko eta energia-kontsumoa murrizteko proiektuak eta lanak aurrera eramatea.
- Herritarren ongizatea hobetzeko zerbitzuak egonkortu eta bizi-kalitatea hobetzeko aisialdia lantzeko proiektuak indartzea.

Jarraian, Begoña Abio zinegotziak, EAJ-PNV taldearen izenean, adierazpen honeek egin dauz.

Aurrekontua osotzeko bidean udal gobernuak egin dauan gestinoaz ez gagoz ados. Izan be, behin betiko aurrekontua aste honetako astelehenean, zezeilaren 24an, gaueko 09:30ean, jaso genduzan, eta, gainera aurrekontuak errakuntzak eduki dauanez azkenak hurrengo egunean, martitzenean, jaso doguz. Ondorioz, ez dogu izan astirik behar dan modura aztertzeke aurrekontua.

Horrez gain, gestinoa txarto egin da, ez dago informazino batzordeko gai-zerrendarik ezta aktarik be, eta hori guztiori gardentasunaren auditoria egin ostean, adierazo zan hori guztia herriko web gunean argitaratuko zala, baina ez da egin.

EAJ-PNV taldearen botoa ezezkoa izan beharko litzateke gestino hori ikusita, baina kontuan izanik ados gagozela aurrekontuak osotzeko egin dan herritarren parte hartzearen tramiteagaz eta horren ondorioz jasotako emoitzagaz, bai eta, gure taldeak proposatutako gai batzuk aurrekontuan jaso dirala, gu abstenidu egingo gara.

Amets Jauregizar alkate andreak, erantzun hau emon deutso:

Egia da arlo batzuetan hobetu egin behar dogula, esaterako herriko web gunean aktak ipiniz, baina batzordeak grabatu egiten dira eta audioak badagoz; alde positiboak be aipatu beharrekoak dira, esaterako 2020 udal aurrekontua osotzeko bidean udal talde guztiek eduki daben aukerea ekarpenak egiteko, Horrela, igezko urrian talde politikoei aurrekontuaren lehenengo zirriborroa emon jaken. 2020ko urtarrilaren 1ean bigarren zirriborroa bialdu jaken taldeei, urtarrilaren 8an batzarra egiten da taldeen ekarpena jasoteko eta zezeilaren 6an beste batzar bar egin zan aurrekontua eta azkeneko zirriborroa emon zan. Azkenik, aukerea egon da be aurrekontuari ekarpena egiteko zezeilaren 24ra arte, izan be, egun horretan egin zan udalbatza prestatzeko informazino batzordea, eta EAJ-PNV taldeak ez eban ekarpenik egin.

Zezeilaren 6an emon zan aurrekontuko zirriborroaren egiturea ez da aldatu, egin dana da aldaketa teknikoak.

Begoña Abio zinegotziak erantzun deutso hauxe esanez:

Guk, 2020ko zezeilaren 24an egin zan informazino batzarrean ezin izan genduan aurrekontuari ekarpenik egin, horren eduki zehatza ezagutzen ez gendualako. Bai eduki dogu zezeilaren 6an jaso genduan aurrekontuaren zirriborroa baina ez zan behin betikoa izan.

Egon gara zain ia ogasun informazino batzorderik egingo dan aurrekontuari buruz eztabaidatzeko.

Ez dot uste gestino hona egin danik, baina baloratzen dot egin dan beharra, eta geure beharra be baloratzea nahi dot.

Javier Miguel zinegotziak, Bakiobai taldearen izenean, dino: garrantzitsua aurrekontua betetzea da, eta horren jarraipena egingo dogu, hau da, justifikatu egin beharko dira aurrekontuan ageri diran zenbakien erabilerak, hau da, gastuen motibazinoa.

Tramitatutako espedientea kontuan izanik, zinegotzien botoa emoteari ekin deutse, eta, ondorioz, Amets Jauregizar, Irati Muruaga, Begoña Olealdekoa, Mariaa Isabel Barturen, Egoitz Abrio (EH Bildu taldekoak) eta Josu Garai eta Javier Miguel (Bakiobai

taldekoak) zinegotzien aldeko botoagaz, eta eurok korporazinoa legez osotzen dabean gehiengo osoa izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

1.- 2020ko udal aurrekontu orokorra lehenengoz onartzea, jagokozan eranskinak barruan dirala, besteak beste, aurrekontu-plantilla eta aurrekontuen betearazpenari buruzko araua. Izan be, gastu eta sarrera orrietako zenbatekoak kapituluka laburtuta ondorengoak dira:

RESUMEN POR CAPITULO / LABURPENA KAPITULUKA INGRESOS / SARRERAK		
Capítulo kapitulua	Denominación Izendapena	aurrekontua 2020
1	Impuesto directos / <i>Zerga zuzenak</i>	1.103.189,80
2	Impuestos indirectos / <i>Zeharkako zergak</i>	75.000,00
3	Tasas y otros ingresos / <i>Tasak eta bestelakosarrerak</i>	799.764,66
4	Transferencias corrientes / <i>Transferentzia arruntak</i>	2.077.553,13
5	Ingresos patrimoniales / <i>Ondare sarrerak</i>	326.707,30
	INGRESOS CORRIENTES / SARRERA ARRUNTAK	4.382.214,88
6	Enajenación de inversiones / <i>Inbertsioen besterenganatzea</i>	0,00
7	Transferencias de capital / <i>Kapital transferentziak</i>	0,00
	INGRESOS DE CAPITAL / KAPITAL SARRERAK	0,00
8	Activos financieros / <i>Aktibo finantzarioak</i>	3.600,00
9	Pasivos financieros / <i>Pasibo finantzarioak</i>	0,00
	INGRESOS FINANCIEROS / FINANTZA SARRERAK	3.600,00
TOTAL / GUZTIRA		4.385.814,88
GASTOS / GASTUAK		
Capítulo kapitulua	Denominación Izendapena	aurrekontua 2020
1	Gastos de personal / <i>Perstonal gastuak</i>	1.435.163,10
2	Gastos corrientes y de serv. / <i>Gastuak ond. Arrunt eta zerb.</i>	2.029.078,78
3	Gastos financieros / <i>Gastu finantzarioak</i>	16.000,00
4	Transferencias corrientes / <i>Transferentzia arruntak</i>	172.526,63
5	<i>Crédito global y otros imprevistos/ Kreditu globala eta bestelako ustekabeak</i>	71.324,36
	GASTOS CORRIENTES / GASTU ARRUNTAK	3.724.092,86
6	Inversiones reales / <i>Inbertsio errealak</i>	547.000,00
7	Transferencias de capital / <i>Kapital transferentziak</i>	0,00
	GASTOS DE CAPITAL / KAPITAL GASTUAK	547.000,00
8	Activos financieros / <i>Aktibo finantzarioak</i>	0,00
9	Pasivos financieros / <i>Pasibo finantzarioak</i>	114.722,02
	GASTOS FINANCIEROS / FINANTZA GASTUAK	114.722,02
TOTAL / GUZTIRA		4.385.814,88

2.- Onartutako aurrekontuaren espedientea jendaurrean azaltzea hamabost asteguneko epean, aldez aurretik “Bizkaiko Aldizkari Ofizial”ean, udaleko iragarki taulan eta udalerriko ohiko tokietan iragarkia eta beharrezko dokumentazinoa herritarren eskura iminiz.

3.- Jendaurreko epean agiri horreen kontrako erreklamaziorik egon ezean, erabagi hau behin betikotzat hartzea.

5.- LANPOSTUEN ZERRENDEAREN ALDARAZPENA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ, 6 PLAZA BARRI BARRUAN DIRALA. ERA BEREAN, PROPOSATZEN DA PLAZA BARRI HORREEN GANEKO TXOSTEN JURIDIKOAK ETA SORTUTA DAGOAN LANPOSTU BATEN ALDARAZPENARI BURUZKO TXOSTENA ONARTZEA.

Tramitatutako espedientean, gaiari buruz haxe azaltzen da:

LEHENENGOA.- 2013ko apirilaren 22an argitaratu zan Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (76. zk.) Bakioko Udaleko lanpostuen azken zerrenda onartua.

BIGARRENA.- Onartutako azkeneko LZ izanda, honela aldarazoteko proposamena egiten da:

1.- Funtzionario-plaza bi amortizatzen dira, lanpostu honeei jagokezanak:

Administrari laguntzailea: lanpostu hutsa dagoelako, lanpostu hori betetzen zuen titularrak erretiroa hartu duelako..

Administraria: hutsik dago barne-sustapenaren bidez betetzeko.

2.- Sei plaza barri sortuko dira, honako lanpostu honeei jagokezanak, eta ezaugarri honeek eukiko dabez:

Administrari lanposturako plaza 1

Eskala: Administrazio Orokorra

Azpieskala: administratiboa

Arloa: Idazkaritza

Kidegoa: C1

Titulazino akademikoa edota bestelako beharkizunak: Batxilergoa, LH2 edo baliokidea, 6/1989 Legearen 43. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hizkuntz eskakizuna: 3.- Derrigortasun data: lanpostuen zerrenda onartzeko unea

Dedikazinoa: Lanaldi osoa

Ordainsari maila Udalaren hitzarmenaren arabera (Udalhitz): 15

C1 kidearen soldata

Lanpostu mailako osagarria: 21

Berariazko osagarria: 20.656,02 €

Hornidura: lehiaketa-oposizinoa.

Udaltzaingoaren posturako plaza 1:

Eskala: Administrazio Berezia

Azpieskala: zerbitzu bereziak

Arloa: Idazkaritza

Kidegoa: C1

Titulazio akademikoa edota bestelako beharkizunak: Batxilergoa, 2. mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea, 6/1989 Legearen 43. artikuluan ezarritakoaren arabera. B2 edo BTP gidabaimena, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen 55.bis).1.g artikuluan ezarritakoa dala eta.

Hizkuntz eskakizuna: 2.- Derrigortasun data: lanpostuen zerrenda onartzeko unea

Dedikazioa: Lanaldi osoa

Ordainsari maila Udalaren hitzarmenaren arabera (Udalhitz): 15

C1 kidearen soldata

Lanpostu mailako osagarria: 21

Berariazko osagarria: 20.656,02 €

Hornidura: lehiaketa-oposizinoa.

3 plaza Udaltzaingoko laguntzaile-posturako:

Eskala: Administrazio Berezia

Azpieskala: zerbitzu bereziak

Arloa: Idazkaritza

Kidegoa: C1

Titulazio akademikoa edota bestelako beharkizunak: Batxilergoa, 2. mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea, 6/1989 Legearen 43. artikuluan ezarritakoaren arabera. B2 edo BTP gidabaimena, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen 55.bis).1.g artikuluan ezarritakoa dala eta.

Hizkuntz eskakizuna: 2.- Derrigortasun data: lanpostuen zerrenda onartzeko unea

Dedikazioa: Lanaldi osoa, martitik urrira, hau da, lanpostua beteko dan hilabeteetan; izan be, epe horretan herriko biztanleek gora egiten dabe, eta horregaz batera zerbitzuaren beharrak be bai.

Ordainsari maila Udalaren hitzarmenaren arabera (Udalhitz): 14

C1 kidearen soldata

Lanpostu mailako osagarria: 18

Berariazko osagarria: 19.996,87 €

Hornidura: lehiaketa-oposizinoa.

Lanpostu 1 ofizioetako beharginaren lanposturako

Pertsonala: lan-legepekoa

Izendapena: hainbat lanbidetako behargina: iturgintza

Kidegoa: D

Titulazino akademikoa edota bestelako beharkizunak: LH 1 elektrizitatean eta elektronikan edo fabrikazio mekanikoan edo instalazino-mantentzean edo eraikuntzan eta obra zibilean edo energia-uretan edo antzekoan.

Hizkuntz eskakizuna: 1.- Derrigortasun data: lanpostuen zerrenda onartzeko unea

Dedikazinoa: Lanaldi osoa. Ganera, lanaldi zabalduaren modalidadea ezartzen da, dedikazio osoz (Udalhitz hitzarmenaren 76. artikulua); beraz,% 15 igo da bere ordainsaria.

Ordainsari maila Udalaren hitzarmenaren arabera (Udalhitz): 14

Berariazko osagarria: 5.393,80 €

Hornidura: oposizinoa.

3.- Alguazil lanpostua, Lanpostuen Zerrendan egoana, aldatu egin da, eta, orain, izena aldatu, eta Tokiko Polizia Zerbitzuko Agente izena hartuko dau (esleipena eta betekizunak), Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren aholkularitza juridikoaren txostenaren babesean. Hori dala eta, lanpostua honako baldintza honeetan onartzea proposatzen da:

Udaltzaingoaren zerbitzu agentea

Eskala: Administrazino Berezia

Azpieskala: zerbitzu bereziak

Arloa: Idazkaritza

Kidegoa: C1

Titulazino akademikoa edota bestelako beharkizunak: Batxilergoa, 2. mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea, 6/1989 Legearen 43. artikuluan ezarritakoaren arabera. B2 edo BTP gidabaimena, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen 55.bis).1.g artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hizkuntz eskakizuna: 2.- Derrigortasun data: 1992/12/30

Dedikazinoa: Lanaldi osoa.

Ordainsari maila Udalaren hitzarmenaren arabera (Udalhitz): 14

C1 kidearen soldata

Lanpostu mailako osagarria: 18

Berariazko osagarria: 19.996,87 €

Hornidura: estalia, lehiaketa.

Adierazo beharrekoa da ezen, aitaturako 6 plaza barrien lanpostuen betekizunen eta funtzioen inguruan, udal-aholkulari juridikoak 2019ko abenduaren 27an egindako txostena dagoela.

Era berean, espedientean badago 2020ko zezeilaren 18ko txostena, aurrekoaren osagarria, aholkulari horrek egindakoa. Txosten horrek, 6 lanpostu barrien betekizunetan eragiteaz gain, 2019ko abenduko aurreko txostenagaz alderatuta aldaketaren bat ere jasoten dau, aguazil lanpostua Udaltzaingoaren Zerbitzuko agentearen ordeztatzea, hatan be.

Proposamen horreek sindikatuetakoz ordezkariaz negoziatu dira Negoziazino Mahai Orokorrean, 2020ko urtarrilaren 30ean, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen dauden urriaren 30eko 5/2015 Legegintzazko Errege Dekretuaren 34. eta 37 c) artikulua ezarritakoari jarraituz.

4.- Azkenik, lanpostuen zerrendan dagozan lanpostuei jagokenez, aldaketa bat egin da, Langile Iragankorraren Osagarria sortzearen inguruan, behargin horreek jasoten dabezan ordainsariak bat etorri daitezkan LZ horretan ezarritakoagaz; izan be, desorekak antzeman dira langileek jasoten ebezan nominetan, indarrean dagoen LZri jagokenez. Osagarri hori desagertu egingo da lanpostuen balorazinoa amaitzen dan uean; Udalak zeregin hori agindu eutson kanpoko enpresa bateri 2020ko zezeilaren 19an.

Amets Jauregizar andreak, hauxe adierazo dau:

2019. urtean konpromisoa hartu genduan udal pertsonalaren lanpostuei buruzko balorazinoa egiteko, zergaitik eta, batetik, udalaren egoera ekonomikoa hoberrantz egin ebala aprobetxatuz uste genduan plantilla handitu egin behar zala zerbitzuak ahalik eta modu hobean emoteko; eta, bestetik, azkenengo balorazinoa 2002an egin zalako eta ordutik ona urte asko pasa diran ezker, beharginen funtzinoen, egiten dabezan beharren eta ordainsarien ikuspegi osoa eukitzea gaxa zalako.

Horrezaz gain, Goreneko Auzitegiak epaia kaleratu eban esanez, udaltzainak ezin zirala izan bitarteko funtzionarioak, behin betikoak baino; beraz, galarazo egiten zen aldi baterako udaltzaina kontratatzea. Egoera horretan gagozela, 2019ko garagarrian Euskadiko Polizia Legea aldatzen eban bagilaren 27ko 7/2019 Legea argitaratu zan, eta araudi horrek aldi baterako udaltzain laguntzaileak kontratatzeo aukera emoten eban.

Beraz, pentsa genduan Lanpostu Zerrendaa aldatu beharra. Orain dakarguna da 6 lanpostu barri sortzea (azaldu egin dau lanpostu bakotxa sortzeo beharriana eta funtzinoak), aguazil lanpostuaren aldarazpena udaltzain zerbitzuko agente bihurtzeo — horretarako, Eusko Jaurlaritzaren aldeko txostena jaso dou — eta, azkenik, azkeneko Lanpostuen Zerrenda 2013an onartu eta argitaratu zala kontuan hartuz, ikusten dogu pertsonalak jasoten dauan soldata ez datorrela bat Lanpostuen Zerrendan azaltzen danagaz, eta, hori dala eta zuzenketa egin dogu Lanpostuen Zerrendan Iraganaldiko Osagarri Pertsonala sortuz, pertsonalaren balorazinoa egin arte indarrean egongo dana, eta balorazino hori, dagoeneko, kanpoko enpresa bateri agindu jako egitea.

Begoña Abio zinegotzi andreak, EAJ-PNV taldearen izenean hauxe adierazo dau:

Guk 6 plaza sortzea eta aguazil lanpostua Udaltzain Zerbitzuko Agentea izendatzea ondo ikusten dogu, baina Iraganaldiko Osagarri Pertsonala sortzeaz ez gagoz ados. Langileen soldaten kontzeptu batzuk baxatu egiten diralako, azkenean bardin kobrauko daben arren. Ganera, osagarri hori ez dago ipini beharrik, ze lanpostuen balorazinoa, dagoeneko, adjudikatu jako enpresa bateri eta, beraz, balorazinoan agertuko dira

behargin bakotxaren funtzinoak eta lanpostu bakotxak izango dauan lanpostu eta berariazko osagarriak, ganera, hori hile batzuk barru eginda egon daiteke.

Amets Jauregizar alkate andreak, era honetara erantzun deutso:

Alkate honek ez dauana egingo da nominak sinatu jakinda txarto dagozana. Beraz, beste aukera bat izango zan nominak ez ordaintzea balorazinoa egin eta onartu arte, hori gerta ez daiten Iraganaldiko Osagarri Pertsonala sortu dogu Lanpostuen Zerrendan eta horren iraunaldia balorazinoa onartzen danera arte izango da.

Hiru hilabete daroadaz urteetatik dagoan egiturazko arazoari konponbidea bilatzen. Daukaguz zazpi behargin 25 urte baino gehiago daroazenak udalean beharrian, horietariko hiru behargin dedikazio eskusiboa daukie ezin dabenean eduki dedikazino hori lanpostu zerrendatik kanpo dagozalako eta, gainera, dedikazino hori onartzea Udalbatzari jagokolako, horretatik aparte 2004an Alkatetzaren dekretu baten bidez urteko 600 euro igotea onartu zan, erabagi hori be Udalbatzari jagokonean. Beraz, ez dago eskubiderik horretarako; beraz, lanpostuen balorazinoa egitea beharrezkoa da egoera bideratzeko. Ganera, lanpostuen balorazinoa egiteko orduan egia da berandu gabiltzala, baina ezin jako udal gobernu honeri leporatu hori, ze azkeneko balorazinoa 2002an egin zan, eta ordutik honako EAJ-PNV udal gobernuak lanpostuen balorazinoa egiteko astia izan dabe.

Begoña Abio zinegotziak hauxe adierazo dau: *Guri adituak esan deuskue nominak ez dirala ilegalak. Errakuntzak, egon daitekez, baina horrek ez dau esan gura ilegalak diranik.*

Begoña eta Ametsen artean eztabaida izan da nomen ganean, eta bakotxak berenari eutsi deutso.

Azkenik, zinegotziek bozkatzeari ekin deutse, eta, ondorioz, tramitatutako espedientea kontuan hartuz, EH Bildu taldea osotzen daben bost zinegotzien eta Bakiobai taldea osotzen daben bi zinegotzien taldeko aldeko botoagaz, korporazinoa legez osotzen daben gehiengo osoa izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

Lehenengoa.- Bakioko Udaleko funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen lanpostuen zerrendaren aldaketa onartzea, kontuan izanik aldaketa horrek, besteak beste, 6 plaza barri sortzea (bost funtzionario eta lan-kontratuko langile finko bat) eta aguazil lanpostuaren ezaugarriak aldatzea dakarrela.

Era berean, udaleko aholkulari juridikoaren 2019ko abenduaren 27ko eta 2020ko zezeilaren 18ko txostenak onartzea.

BIGARRENA.- Onartutako udaleko lanpostuen zerrendearen aldarazpenaren espedientea jendaurrean azaltzea hamabost egun balioduneko epean, aldezturik "Bizkaiko Aldizkari Ofizial"ean, udaleko iragarki taulan eta udalerriko

ohiko tokietan iragarkia eta beharrezko dokumentazioa herritarren eskura iminiz.

Jendaurreko epean agiri horreen kontrako erreklamaziorik egon ezean, erabagi hau behin betikotzat hartzea.

Bertaratutako EAJ-PNV taldeko lau zinegotziak ezezko botoa emon dabe (Maria Begoña Abio, José Luis Urrutia, Guillermo Martín eta Gorka Uriarte), horretarako, María Begoña Abio bozeroaleak emondako argudioekaz bat etorri dira eta.

6.- ALDI BATERAKO LAN LEGEPEKO ORDAINSARIEI BURUZKO ERABAGIA HARTU.

Gai honeri buruz Udal idazkariak azalpen hau emon dau: *udal lanpostuen zerrendatik kanpo dagozan aldi baterako izaeradun beharginen nominak osotzen dabean kontzeptuak egokitu beharra egon dala (kasu batzuetan (Iraganaldiko Osagarri Pertsonala sortuz), baina horrek ez deusola eragiten beharginek jasotzen dabean edo jaso behar daben ordainsariei.*

Azkenik, zinegotziek bozkatzeari ekin deutse, eta, ondorioz, tramitatutako espedientea kontuan hartuz, EH Bildu taldea osotzen daben bost zinegotzien eta BakioBai taldea osotzen daben bi zinegotzien taldeko aldeko botoagaz, korporazinoa legez osotzen daben gehiengo osoa izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

Bertaratutako EAJ-PNV taldeko lau zinegotziak ezezko botoe emon dabe (Maria Begoña Abio, José Luis Urrutia, Guillermo Martín eta Gorka Uriarte).

7.- ELEXALDE SR-6 EREMUKO PLAN PARTZIALAREN ALDARAZPEN PARTZIALA BEHIN-BEHINEAN ONARTU, BETI BE EGIN BAKO ALDEETAKO ORDENAZINO XEHATUARI JAGOKONEZ. LEHENIK.-

LEHENIK.-Bizkaiko Foru Aldundiaren Garraio eta Hirigintza Sailak, abuztuaren 7ko 847/2008 Foru Agindu bidez, behin betiko onartu zuen SUR.6-Elexalde egoitzazko eremu urbanizagarriaren plan partziala; gauzak horrela, Foru Aldundiaren ebazpen hori 2008ko abuztuaren 21eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta planaren arautegi urbanistikoa 2009ko otsailaren 11ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren Lehendakaritza Sailak uztailaren 3ko 4638/2012 Foru Agindu bidez, behin betiko onartu zuen SUR.6-Elexalde egoitzazko eremu urbanizagarriaren plan partziala aldaraztea, bereziki sestra azpiko lerrokadurari

eta bestelako gai batzuei zegokienez. Foru Aldundiaren ebazpen hori eta aldarazpenaren arautegi urbanistikoa 2012ko uztailaren 18ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziran.

Horren guztiorren ondoren, udalaren ekimenez, plan partzial horren aldarazpenaren zirriborroa prestatu zen. Horrela, SR.6-Elexalde eremuan burutu ez diren azpi-zonaldetako plan partzialaren antolamendu xehatuaren aldarazpen partziala proposatu zen.

Hori dela eta, aldarazpen hori, zirriborroan ezarritako helburu eta irizpideen arabera, garatzen jarraitu ahal izateko, Bakioko udalbatzak, 2018.08.23an, honakoa erabaki zuen bertaratutako zinegotzien aho batez: *Bakioko hirigintza plangintzako arau subsidiarioetako SR-6-Elexalde egoitzako eremuan urtebeteko epean etetea era guztietako onarpen, baimen eta lizentzia urbanistikoak ematea.*

Etete erabaki hori jendaurrean ipini zen, horretarako, 2018.08.30eko BAOn, 2018.08.31ko egunkari bitan, herriko taulan eta udaleko web orrian iragarkiak ipiniz, betiere, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak bere 85. artikuluan ezarritako moduan.

BIGARRENIK.- SR.6-Elexalde eremuan burutu ez diren azpi-eremuetako plan partzialaren antolamendu xehatuaren aldarazpen partziala, udalaren ekimenez, idatzi zen, eta Bakioko Udalbatzak, 2019ko martiaren 28an, behin behinean onartu zuen.

Erabaki hori eta dagokion espediente informazio publikoan ipini ziran, hogeitau egun baliodun epean, horretarako iragarkiak ipiniz, bai, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean; bai egunkari bitan; bai, herriko taulan, eta bai eta herriko web gunean, betiere interesatuek epe horretan Udaletxean espediente aztertu eta alegazioak aurkezteko era eduki dezaten.

Espediente informazio publikoan egon den bitartean hiru alegazio-idatzi aurkeztu dira, alegaziogileak hauek izanik:

ASUA, grupo inmobiliario S.L.
ALTAMIRA Santander Real State, S.A.
ALISEDA S.A.U.

Alegazio horiei buruz 2020ko urtarrilaren 10eko udal idazkariaren txostena egin da, izan ere agiri hori udal espedientean dago.

HIRUGARRENIK.- 2019ko azaroaren 22ko Euskadiko Aldizkari Ofizialean ondoko araudia argitaratu ostean, biharamunean indarrean sartu zen: *179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.*

Dekretu horren arabera, hizkuntza-inpaktua dela-eta ebaluatu behar diren hirigintzako planen artean Plan Partzialaren aldaketa dago.

Bakioko Udalak hizkuntza-inpaktuaren azterlana idatzi duenez (179/2019 dekretuaren 54. artikulua kontuan hartuz), Bakioko Alkatearen abenduaren 27ko 456/2019 dekretuaren bidez, azterlana jendaurrean ipini zen 20 egun balioduneko epean; izan be, horretarako, iragarkiak ipini ziran egunkari bitan, 2020-01-21eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko taulan eta udaleko web gunean, eta inork be ez zuen alegaziorik aurkeztu.

Ondorioz, Plan Partzialaren aldaketari hizkuntza-inpaktuaren azterlana eta alegazioetako onartutako atalak gehitu zitzaizkion, eta Iñigo Azkarate Mutiloa y Miguel Angel Blanco Rodriguez arkitektoek, udalaren ekimenez idatzitako dokumentu hori 2020ko otsailaren 20an udaletxean aurkeztu zuten.

Hori guztiori kontuan izanik, baita tramitatutako espedienteaz azaltzen diren agiriak ere, Bakioko Udaltzako, bertaratutako zinegotzien aho batez (4 zinegotzi EAJ-PNV taldekoak, 5 EH-Bildukoak eta 2 BAKIOBAIkoak), ondorengo erabakia hartu du:

LEHENIK.- Ondoko hauek aurkeztutako alegazioei buruzko arestian aitaturako 2020.01.10 txostena onartzea:

ASUA, grupo inmobiliario S.L.
ALTAMIRA Santander Real State, S.A.
ALISEDA S.A.U.

BIGARRENIK.- Elexalde SR-6 eremuko Plan Partzialaren aldarazpen partziala behin behinean onartzea (hizkuntza-inpaktuaren azterlana eta alegazioetako onartutako atalak barnean direla), betiere berregikaritu gabeko azpi-eremu etako ordenazio xehatuari dagokionez; izan ere, udal ekimenez egindako egitasmoa da.

Espedientea Bizkaiko Foru Aldundiari bidaltzea, Plan Partzialaren aldaketa behin betiko onartu dezan.

8.- SR2 (BAKEA) EREMUA DALA-ETA URRIAREN 17KO 436/2019 EPAIAREN ONDORIOZ INDARREAN DAGOAN ARAUDIA ZEHAZTEA ERABAGI, HALA BEHAR BALITZ.

Lehenengo eta behin, udal idazkariak zinegotzietara bialdutako erabagi-proposamena azaldu dau:

“Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak, 442/2013 zenbakidun administrazioagazko auzi-errekurtsoari jagokonez,

urriaren 17ko 436/2019 epaia eman dau (2019-10-24an jaso zen udaletxean), eta honela dio xedapen-zatian:

Baietsi egin behar dugu Francisco Fontán Zubizarreta, Juan Elexpuru Arteche, Jon Anitua Arteche eta Rafael Arteche Heraulten ordezkariak prozesalak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtoa, eta baliogabetzat jo Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 16ko 2657/2013 Foru Agindua, 2013ko apirilaren 30eko BOEn argitaratua (80. zk.), SR.Bakea bizitegi-lurzoru urbanizagarriari jagokonez, Bakioko Arau Subsidiarioen aldaketari buruzkoa.

Epai horren hirugarren oinarrian ezarritakoaren arabera, SR2-Bakea sektoreari aplikatu beharreko hirigintza-antolamendua aldaketaren aurreko arau subsidiarioetan jasotakoa izango da (2003ko urritik indarrean dagoan udalerriko arau subsidiarioetan jasotakoa).

Dagoen jurisprudentziaren arabera (Auzitegi Gorenaren 2013ko ekainaren 19ko epaia, 2016ko martxoaren 2koa, Auzitegi Gorenaren 2013ko abenduaren 13ko epaia eta 2011ko urriaren 18ko epaia), plan orokorraren erabateko deuseztasunak horretatik eratorritako planei eragiten deutse, eta, beraz, haren ondorio baliogabetzaileak haren garapenean onartutako plan eratorrietara hedatzen dira, garapen-plan horien arau-izaera dala eta.

SR-2 Sektoreko arau subsidiarioen aldaketa horren babesean, udal bidean plan partzialaren aldaketa idatzi eta onartu zen, eta, ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak behin betiko onartu eban martxoaren 28ko 526/2011 Foru Aginduaren bidez.

Goian aipatutako jurisprudentzia-ildoari jarraituz, onartutako plan partzialaren aldaketaren deuseztasuna hura babesten eban arau subsidiarioen aldaketaren deuseztasunaren ondorio da, salbu eta plan partzialaren aldaketa horrek berriro indarrean dagoen plan orokorrarekin (gure kasuan, arau subsidiarioak) bat badator.

Esku artean dugun kasuan, udal-teknikariek emandako informaziotik ondoriozta daitekeenez, nahiz eta 2011ko plan partzialaren aldaketaren alde batzuk "berpiztutako" 2003ko urigintza-araudiagaz bat etorriko leuken, beste alde batzuk, barriz, ez dabe halakorik, eta, beraz, goragoko araudia urratzen dabe.

Beraz, udaleko zerbitzu juridikoak erabagi hau hartzea proposatzen dau:

SR.2 Bakea sektoreko arau subsidiarioen aldaketa baliogabetzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 436/2019 epaiaren ondorioz, honako hau gertatzen dela:

LEHENEA.- Deuseztatutako arau subsidiarioak aldatu aurreko hirigintza-antolamendua SR.2 Bakea sektoreari aplikatzea, hori baita Bakioko udalerriko hirigintza-plangintzako arau subsidiarioetan ezarritakoa. Izan ere arau horiek

Bizkaiko Foru Aldundiak (GFA) onartu zituen abenduaren 14ko 810/2001 Foru Aginduaren bidez (2002-01-14ko BAO n argitaratua), eta 2003ko urriaren 2tik dago indarrean.

BIGARRENA.- Deuseztatutako arau subsidiarioen aldaketa garatzeko BFAk martxoaren 28ko 526/2011 Foru Aginduaren bidez onartutako SR.2.Bakea Sektorearen Plan Partzialaren aldaketa ezin da aplikatu; horren ordez, BFAk uztailaren 9ko 1047/2004 Foru Aginduaren bidez onartutako SR.2 Sektorearen Plan Partziala aplikatu behar da, 2004ko abuztuaren 3an argitaratutakoa 148. zk.koBAOn. Izan ere, 2004ko Plan Partziala 2003ko urritik indarrean dauden Bakioko hirigintza-plangintzaren arabera egin zen.

HIRUGARRENA.- S.R.2 sektorean eraikitako eraikinak abenduaren 14ko 810/2001 Foru Aginduaren bidez onartutako Arau Subsidiarioetara egokitzen ez badira, eraikin toleratutzat joko dira, aipatutako Arau Subsidiarioen 19. artikuluko 1. atalean adierazitako baldintzak betetzen direlako. Honela dio:

Eraikin toleratuaren egoeraren barruan sartzen dira lerrokaduragatik, altueragatik edo aprobetxamendugatik plangintzara egokitu ezin diren eraikin, erabilera eta instalazioak, baina dokumentazio grafikoan ez dira berariaz aipatzen aurreko artikuluan araututako egoeraren batean”.

Ostean, Amets Jauregizar alkate andreak dino:

Arau subsidiarioen aldarazpena indargabetuta geratu dan ezkerro, eremuan hiru leku azpimarratu doguz indargabetze horrek izango dauzan ondorioen arabera: bata da indargabetutako arau subsidiarioen aldarazpenaren arabera egin diran eraikinak; bestea, Foru Aldundiaren lursaila, etxebizitza tasatuak egiteko; eta, azkena, eraiki barik dagoan lursaila, etxebizitzak egiteko.

Hiru aldeetako titularrekaz berba egin dogu, batetik, eraiki barik dagoan lursailean lizentziak emon ahal dira, ezabatutako arau subsidiarioen aldarazpenaren eta horren aurretiaz indarrean egoan arau subsidiarioen urigintza ordenazioak antzekoak diralako, lursail horri jakokonez, jakina.Bestetik, Foru Aldundiagaz be berba egin dogu eta barriro be alde biok batzartu behar gara, bere lursailari buruz berba egiteko Eta, azkenik, aldarazpenaren arabera, eraiki diran etxebizitzak jaubeekaz batzartu ginen eta esan jaken idatzia bialduko jakela esanez ze egoera juridikoan geratuko diran etxebizitzak.

José Luis Urrutia zinegotziak, EAJ-PNV taldearen izenean, dino eurak abstenidu egingo dirala. Izan be, ez dabe ulertzen zergaitik hartu gura dan gaurko erabagia, epaian egoerea zelan geratu dan argi azaltzen danean.

Amets Jauregizar alkate andreak dino: ona da gauzak argi ixtea seguridade juridikoagaitik, beti be zehazteko zein Plan Partzial aplikatuko dan, 2004koa edo 2011koa. Gainera, 2009. urtean EAJ-PNV gobernuan egon zanean berdin ebanBakeako beste epaia bategaz, dekretua kaleratu eban epaiari buruz. Guk, bardin egin dogu, baina

udalbatzak hartzea gura dogu, ze bera izan zan arau subsidiarioen aldarazpena behin-behinean onartu ebana, organo eskudun modura eta, ganera, horrela erabagiari babes handiagoa emoten jako.

Jarraian, EH Bildu taldea osotzen dabene bost zinegotzien eta Bakiobai taldea osotzen dabene bi zinegotzien taldeko aldeko botoagaz, korporazinoa legez osotzen dabene gehiengo osoa izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, azalpen atalean dagoan proposamena onartzea, horren erabagia hauxe izanik:

SR.2 Bakea sektoreko arau subsidiarioen aldaketa baliogabetzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 436/2019 epaiaren ondorioz, honako hau gertatzen dela:

LEHENA.- Deuseztatutako arau subsidiarioak aldatu aurreko hirigintza-antolamendua SR.2 Bakea sektoreari aplikatzea, hori baita Bakioko udalerriko hirigintza-plangintzako arau subsidiarioetan ezarritakoa. Izan ere arau horiek Bizkaiko Foru Aldundiak (GFA) onartu zituen abenduaren 14ko 810/2001 Foru Aginduaren bidez (2002-01-14ko BAO n argitaratua), eta 2003ko urriaren 2tik dago indarrean.

BIGARRENA.- Deuseztatutako arau subsidiarioen aldaketa garatzeko BFAk martxoaren 28ko 526/2011 Foru Aginduaren bidez onartutako SR.2. Bakea Sektorearen Plan Partzialaren aldaketa ezin da aplikatu; horren ordez, BFAk uztailaren 9ko 1047/2004 Foru Aginduaren bidez onartutako SR.2 Sektorearen Plan Partziala aplikatu behar da, 2004ko abuztuaren 3an argitaratutakoa 148. zk. ko BAO n. Izan ere, 2004ko Plan Partziala 2003ko urritik indarrean dauden Bakioko hirigintza-plangintzaren arabera egin zen.

HIRUGARRENA.- S.R.2 sektorean eraikitako eraikinak abenduaren 14ko 810/2001 Foru Aginduaren bidez onartutako Arau Subsidiarioetara egokitzen ez badira, eraikin tolerantzat joko dira, aipatutako Arau Subsidiarioen 19. artikuluko 1. atalean adierazitako baldintzak betetzen direlako. Honela dio:

Eraikin tolerantzaren egoeraren barruan sartzen dira lerrokaduragatik, altueragatik edo aprobetxamenduagatik plangintzara egokitu ezin diren eraikin, erabilera eta instalazioak, baina dokumentazio grafikoan ez dira berariaz aipatzen aurreko artikuluan araututako egoeraren batean”.

Berlaratutako EAJ-PNV taldeko lau zinegotziak abstenidu egin dira (Maria Begoña Abio, José Luis Urrutia, Guillermo Martín eta Gorka Uriarte), José Luis Urrutia jaunak emondako azalpenagaz bat etorritz.

9.- EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA DALA ETA, MARTXOAREN 8KO ADIERAZPENA.

Irati Abio alkateorde andreak adierazpen-proposamena irakurri dau:

Martxoaren 8a ate joka dugun honetan, Bakioko Udala osatzen dugun alderdiok martxan jarri berri den Berdintasun Kontseiluaren garrantzia nabarmendu nahi dugu. 2019ko martxoan Marta Txori, Haria eta Sare feministako kideak diseinatzen hasi ziren eztabaida eta erabakiaj hartzeko gune honek bere lehen pausuak emango ditu datozen asteetan.

Lan taldean aritu diren eta bertan parte hartzeko konpromisoa hartu duten herritarrei zor diegu gaurkoan 2019ko azaroan onartutako konpromisoa berrestea. Beraz, Bakioko Udala osatzen dugun alderdiok:

- *Berdintasun Kontseiluaren izaera erabakitzailea aitortu eta bertan hartutako erabakiak aintzat hartzeko konpromisoa hartzen dugu.*
- *Zinegotziok beste herritarrak bezala, dinamiketan parte hartzeko konpromisoa hartzen dugu. Horretarako, alderdi bakoitzeko zinegotziok leku bana izango dugu.*
- *Urterik urte, Berdintasun plan edota Kontseiluan garatu daitezkeen bestelako iniziatiben betearazpenaren jarraipena egiteko konpromisoa hartzen dugu.*

Ostean, Udalaren Osoko Bilkurak (11 zinegotzi) adierazpen hori aho batez onartu dau.

10.- ESKAERAK ETA GALDERAK.- Inork ez dau egin eskaerarik edo galderarik.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoan ezkerre, ezta gai-zerrendatik kanpo be, alkate andreak batzar hau 20:45ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkate andrea

Idazkaria